

noaua



**“Izan zirelako gara”,
oroimen ekitaldia**

**Euskara ikasi, aukerak
biderkatu**

**Mikel Artola,
ZIUko erizaina:
“Hilabeteotan gaixo
gehiago ikusi ditut
hiltzen, bizirik
ateratzen baino”**

**FEELING OF
UNITY**



**LOVE
AND RESPECT**

5. or.

KAFE GARAIA

Idoia Torregarai Martija

**“25 urteotan zerbitzu hobego
bat eskaintzeko grina
izan du NOAUA!k”**

ATEAK ZABALIK DITUZU USURBILEN JARDUERA BERRI BATI HASIERA EMATEKO!

DIRU-LAGUNTZAK

ALOKAIRURAKO
DIRU-LAGUNTZA
USURBILEN HUTSIK
DAUDEN LOKALETAN

ZURE PROIEKTUAREN
HASIERAKO GASTUEI
AURRE EGITEKO
DIRU-LAGUNTZA

Informazio gehiago

943 371 951 / 943 30 42 21

enplegu@usurbil.eus
ekinean@andoain.eus

usurbil
zabalik Z




tobyngana
english SCHOOL

Ingeleseko klaseak haur eta helduentzat

LH 3 / LH 4tik aurrera

Bertako irakasleak

Matrikulatzea dohainik

Elkarrizketa klaseak (helduak)

High level "use your English"

Cambridge azterketen prestakuntza

Gozatu eta ikasi!

Eman izena lehen bait lehen, Irailak 6an hasten gara!

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

Albisteak iruditan

Palestinaren aldeko murala, txikitua

Askatasuna plazan duela urtebete kokatu zuten murala txikitu dutela salatu du Tadamun elkargune internazionalistak. “Abuztuko azken larunbat gauak horrela utzi du edo gauak eskaintzen duen babesean horrela utzi dute Palestinaren aldeko murala, txikituta!”. Horren aurrean, “tristura eta amorrua dira gailentzen zaizkigun sentimenduak”, adierazi dute aipatu bilgunetik, sare sozialetan bidez. Murala berritzeko konpromisoa erakutsi nahi izan diote halere, sortze lana kaltetu duenari. “Jakin ezazu gurekin jai duzula. Apurtu duzu murala, baina, berriro jarriko dugu. Gure maitasuna zure gorrotoa baino haundiagoa delako eta Palestinak eta palestinarrek merezi duelako”.

Muralaz gain, duela bi asteberu ere amaiera bera izan zuen Mikel Laboa plaza ondoan landatua dagoen zuhaitz batek.



Tadamun elkargune internazionalistaren Askatasuna plazako mural txikitua.

Laburrean

Tigre eltxoa agertu da Zubietan

Hala ohartarazi du Donostiako Udalak. Prebentzio modura aholkatu duteenez, “aldizkako azterketak egin behar ditugu gure balkoietan eta terrazetan, ur-metaketak saihestuz”. Ura geldirik den ontzietan hazi eta ugaltzen dira.

Eremu gorritik horira, egun gutxitan

Abuztuaren 22az geroztik bi astez eremu gorrian egon ostean, laranja igaro zen Usurbil astelehenean eta horira astearrean, intzidentzia 269,50era murriztu ostean. Abuztuan 56 covid19 kasu zenbatu zituzten gurean, uztailekoen bikoitza.

Matrikulazioa zabalik, Etumeta AEK euskaltegian

Ikasketa maila guztiak, autoikaskuntza, Mintzalagun... Aurtengo berrikuntza; mintza saioa astean 4 orduz. Matrikulazioa zabalik dute astetartean: 11:00-13:00/18:00-20:00. 607 609 379 / usurbil@aek.eus

noaua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendarrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disenua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrerria!



Luis Aranalde

Islamaren irudirik ederrena

Afganistango hiriburuaren itxura aldatu da dagoeneko. Talibanekek boterea hartu eta lau egunera, erakuslehoak apaintzen zituzten emakumeen kartel eta argazkiak suntsitu dituzte eta bertako edertasun zentroetako emakumeen aurpegiak beltzez estali ere. Jakin badakigu islamak ez daukala zerikusirik talibanekek ematen duten irudiarekin. Hori beren erlijioaren karrikatura makur bat besterik ez da.

Islamak hiru erlijiotasun estilo edo mota ditu: suniak (behar bada fundamentalistenak eta gogorrenak), xiiak (moderatuagoak agian) eta sufiak.

Hauen filosofia eta erlijioa ulertzeko era ia guztiz ebanjelikoa dela esango nuke; harreman baketsuak, naturarekiko gertutasuna eta errespetua.

Dantzari garrantzia handia ematen diote, eta arau guztien gaineratik, maitasunari.

Hain zuzen ere emakume sufi batez hitz egiten da komunikabide askotan: Kahina Bahloul. Lehen emakumezko imana izan nahi du Frantzia. Imana da islamiarren artean fedea, hots, egi eta meskitetan biltzen diren elkarten otoitzak gidatzen dituen. Gure inguruko apaizen gisako bat. Irain piloa



“Islamiar askok erlijioa abandonatu du Kahinaren ustez arduradun erlijioak guztiz jokoza kanpo daudelako”.

LUIS ARANALDE

“Zein urrun gauden talibanen eta oro har fundamentalista zentzugabeengandik. Hau da islamaren benetako aurpegia”

jaso du eta baita mehatxuak ere. Frantziako buruzagi islamiarrek baztertu egin dute. Kahinak dioenez Korana liburu sakratua bere alde dago.

Emakume islamiar guztien eskemak apurtu ditu: hasteko, ez darama belorik; “ez da bete-behar erlijioa. Koranak esaten duen gauza bakar horren gainean da emakumeak modu eratsuan jantzi behar duela”.

Beloa, burka eta abarrak kultur matxista eta patriarkal baten adierazgarriak besterik ez dira. Nazkatuta eta nekatua

dagoela esaten du garai batean meskitetan entzuten zituen diskurtso arkaiko eta misoginoekin; orain ez da meskitetara joaten. Horregatik erabaki du bere meskita irekitzea. Fatima (Mahomaren alaba kuttuna) deituko dio. Leku horretan emakumeak begirunez tratatuak izango dira eta hitzaldiak txandaka egingo dituzte gizonezkoek nahiz emakumezkoek. Islama integratzaile eta ireki baten gunea izango da. Teologia aldetik ezerk ez dit debekatzen meskitetako errezoak zuzentzea.

Sexismoa erlijioan ez da soilik islamiarren artean gertatzen. “Sartu izan naizen elizetan eta sinagogetan (judutarren eliza) berdin gertatzen da”, dio. Emakumearen rola bigarren mailakoa da.

Parisko meskita nagusian gertatu zen zerbait bitxia 2013an: leku gutxitxo zego-

la eta, arduradunek erabaki zuten emakumeek erakuntzaren sotoan errezatu behar zutela.

Islamiar askok erlijioa abandonatu du Kahinaren ustez arduradun erlijioak guztiz jokoza kanpo daudelako. Beren mezua ez zaie iristen, hain arkaikoa da, izan ere, ez baitauka zerikusirik gaurko jendeak bizi dituen kezkekin, arazoekin, eguneroko bilaketa espiritualarekin. Erdi Aroko sermoiak entzungo balituzte bezala. “Pentsamendu musulmanaren esklerosi bat dago”, hortik dator hain juxtu islam nabaritzen dugun indarkeria basati hori.

Gizarteak sekulako aurrerapen zientifiko eta kulturala egin du, feminismo arloan ere bai.

Bere idoloak dira Simone Veil, Simone de Beauvoir eta batez ere, Iban Arabi Erdi Aroko maisu sufia. Hone-lazioen duela ia mila urte: “garai batean errefusatu egiten nituen nire erlijioak ez zirenak. Orain, aldiz, nire bihotzean erlijio oro kabitzen da, maitasunaren erlijio sinesten baitut. Maitasuna da nire kredo”.

Zein urrun gauden talibanen eta oro har, fundamentalista zentzugabeengandik. Hau da islamaren benetako aurpegia.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK

Info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Idoia Torregarai: “Herri ekimenez sortu zen NOAUA eta oso harro nago horretaz”

Idoia Torregarai Martija UEUko komunikazio arduraduna da ogibidez. NOAUA! aldizkariaren sorreran hartu zuen parte duela 25 urte eta NOAUA! kultur elkarteko lehendakaria da gaur egun. Askok hala ere, umoregile gisa ezagutuko dute.

NOAUA!ren 25. urteurrenaren aitzakian, “Kafe garaia” izeneko atala abiarazi dugu. Beraz, ezer baino lehen: non zeunden duela 25 urte?

Idoia Torregarai: Ba NOAUA! aldizkaria sortzen laguntzen! Hasierako talde horretako kide izateko zortea izan nuen. Orduan kazetaritzako ikaslea nintzen Leioako campusean, eta han inguruan bizi nintzen Ainhoa Azpirotz eta Josu Aranberriekin batera. Herri aldizkari bat sortzeko tan zirela jakin genuenean segituan sartu ginen. Azken batean, guk nahi genuen zerbaitekin lotzen zen. Oso momentu polita izan zen, hala irudikatzen dut orain. Herriko jende pila bat bildu ginen une hartan, adin eta esparru



“Nahiz eta nire bizitza eta nire ogibidea beste toki batzuetatik joan, beti mantendu dut NOAUA!rekiko haria”.

NOAUA!REN SORRERAZ
“Duela 25 urte herriko jende pila bat bildu ginen, adin eta esparru desberdinetakoak. Oso momentu polita izan zen”

desberdinetakoak.

Egitasmoa bultzatzeko jende

asko batu zen, beraz.

Herri ekimenez sortu zen NOAUA eta horretaz oso harro nago.

Gogoan dut nolako bilerak egingen genituen, asanblearioak... Eta gogoan dut izena jartzeko egin genuen bileraz ere. Izen asko atera ziren eta azkenean NOAUA aukeratu genuen. Gerora, aldizkaria jada sortuta zegoela, kazetari beza-

la hasi nintzen lanean.

Eta 25 urte eta gero, NOAUA! Kultur Elkarteko lehendakaria zara.

Nahiz eta nire bizitza eta nire ogibidea beste toki batzuetatik joan, horrek esan nahi du NOAUA!rekiko haria edo zilborrestea beti mantendu dudala. Eta hementxe nago orain, ospakizunetan, kar, kar, kar.

“Hedabideen itsaso handian tanta batzuk gara oraindik”

NOAUA! kultur elkarteko lehendakaria izateaz gain, Berria egunkariako administrazio kontseiluko kide zara eta Euskadi Irratian eta Ttap aldizkari digitalean kolaboratzen duzu. Papera, euskarri gisa, hilzorian dela entzun dugu azken hamarkadetan, baina pisu handia du oraindik, ezta?

Idoia Torregarai: Zalantzarik gabe, eta horregatik ez da desagertu. Papera beharrezkoa da oraindik eta are

gehiago euskal hedabideontzako. Hau da, eskuetan izatea produktua. Tabernetan egotea, kontsultetan, etxeetako mahai gainetan... Oso garrantzitsua da presentzia fisikoa. Zergatik? Itsaso handi horretan tanta batzuk garelako oraindik. Behar dugu egotea besteekin batera, euskarari bere garrantzia emateko.

Hala ere, begibistakoa da kazetaritzaren etorkizuna sarean

dagoela, hala ez?

Egia da Internet sareak azkeneko urte hauetan izugarritzako aldaketak ekarri dituela gizartean. Komunikabideetan ere igarri da aldaketa. NOAUA!n ere ikusi da, zer nolako pisua duen web orrialdeak gaur egun, eta albisteak momentuan emateak.

Euskaldunoi eta euskal medioei eskatzen zaigu oso lan fina egitea, hau da erreferentziazko lana egitea, pandemia garaian gertatu

den bezala. Eta emaitzetan ikusi da. Pandemia garaian, NOAUA!n eta euskal hedabideetan igo egin dira bisitak. Eta horrek esan nahi du erreferentzia garrantzitsuak direla euskarazko komunikabideak. NOAUA! edota Berria egunkariaren kasuan, presentzia fisikoa edukitzea oso garrantzitsua da gaur egun, eta iruditzen zait aurrerantzean ere hala izango dela, oraindik eta kostako zaiola desagertzea.

“Euskaldunok euskaraz bizitzeko ahalegin bat egin behar dugu egunero”

NOAUA! Paradigma aldaketa eman da oso denbora gutxian. Informazioaren jariora horizontalduta, ugalduta eta nahaspilatuta egin da. Paradigma aldaketa horren albo-kalte bat: euskaldun asko erdaraz ari dira sare sozialetan. Erronka handienetakoa hauxe izango da akaso: euskaraz jardute hutsa erakarri egitea, ezta?

Idoia Torregerai: Sareko bizitza, azken batean, errealtateko edo aurrez aurreko bizitzaren isla bat da. Lehen esan dudan bezala, itsaso zabala da erderetakoa eta izugarritzko indarra dauka horrek. Erderetakoa komunikabideetatik-eta etortzen zaigu baina sarean are errazagoa da indar hori ikustea, ezta? Zenbat gauza dauden ingelesez, frantsesez... gazteentzako batez ere. Eta itsaso horretan, euskararen tanta are txikiagoa dela iruditzen zait. Eta hala ere, euskaldunok daukagun zortea da euskararen presentzia handia dela bertan. Beste hizkuntza gutxituekin alderatuta, oso ona eta oso altua da. Tren hori harrapatu dugula esan nahi du horrek. Wikipediatik hasita, beste 1.000 aplikazio daude eta lortu behar duguna da horri guztiari erabilgarritasuna emate



“Hori da gure Sisiforen metafora. Harria beti daukagu gainean. Baina tira, gozatzen ere saia gaitezen”.

EUSKARA SAREAN

“Beste hizkuntza gutxituekin alderatuta, euskararen presentzia altua da sarean. Tren hori harrapatu dugula esan nahi du horrek”

tea. Adibide bezala, Egunean behin lehiaketa datorkit burura. Egunean behin-ek 50.000 edo 60.000 euskaldun jarri ditu egunero euskaraz jolasten. Horretan asmatu du. Euskara indar-

tzen duzu horrela, modu ludiko batean. Eta euskara zabaltzen duzu eta balioztatzen duzu.

Hori da bidea, hortaz.

Hori da bidea, baina bestetik, euskaldunok euskaraz bizitzeko ahalegin bat egin behar dugu egunero. Esfortzu bat egin behar dugu. Hau da, ezin dugu alperrak izan. Adi egon behar dugu beti. Nahi hori egunero-egunero berretsi behar dugu eta horren aldeko hautua egin behar dugu. Usurbilen euskaraz bizitzeko zortea dugu,

baina gero zuk eguneroko mar-txan hautu bat egin behar duzu euskaraz egiteko, baita Usurbilen ere. Nekeza dela euskaldun izatea, norbaitek esan zuen bezala. Hizkuntza gutxitu batean bizi gara, egoera diglosiko batean, bi hizkuntza handiren aldamenean, hirugarrena ere (ingeleza) oso hegemonikoa denean sarean... Beraz, ahalegin hori egunero-egunero egin behar dugu. Hori da gure Sisiforen metafora. Harria daukagu beti gainean. Baina tira, gozatzen ere saia gaitezen.

“Umorearen galbahetik pasatako bizitza bizi nahi dut”

NOAUA! UEUko komunikazio arduraduna zara. Baina askoren begietan ordea, umoregilea zara. Horoskopoa egiten duzu NOAUAn, Euskadi Irratian aritzen zara astero, ETB1eko Barre Librean ikusi izan zaitugu, Berriako tira komikoetan zure txioak irudi bihurtzen dira... Umorea txikitik gertu izan duzun osagaia izan da. Txispa hori genetikoa duzula esan al daiteke?

Idoia Torregerai: Umorea egi-

ten ere, ikasi egiten da. Argi dago. Gero eta gehiago entrenatu, gero eta gehiago erabili, hobeto moldatuko zara. Dena bezala. Adibidez, ni ez naiz joko olinpikoetara joango inoiz. Nire gorputza ez dago diseinatuta kirolerako, baina horretan ez dut trebatu, ezta? Umorearekin berdin gertatzen da.

Egia da nik etxean dagoeneko bi irakasle oso on izan ditudala. Nere aita, Joxe, Usur-

bilgo txiste kontalaria eta plazagizona. Beretik ikasi nuen segituan umoreak gizarte mailan zer nolako eragina zeukan, bizitzari aurre egiteko garaian. Hori segituan ikusi nuen, zenbat estimatzen zuen jendeak. Ironiarekin edo ironiarik gabe, berak esandakoak nola hartzen zituen jendeak kontuan.

Nire ama aldiz, ezagutu dudana pertsonarik optimistena izan da, baita momentu txarretan ere. Aurrera egite-

ko erakutsitako erresilentzia hori... Horiek denak ikasketak batzuk izan dira niretzat. Nik gero hautu politiko bat hartu nuen; umorearen galbahetik pasatako bizitza bizi nahi dut. Horrek ekarri du gainerako guztia. Batekin eta bestearekin kolaboratzen hastea. Une honetan, umorearen erregistroa bada bizitza bizitzeko modu bat eta aurrera egiteko modu bat.

“25 urteotan, hobetzeko eta zerbitzu hobeago bat eskaintzeko grina izan du NOAUA!k”

NOAUA! Euskararen normalizazioan eragiteko sortu zen NOAUA! Kultur Elkarte. He-dabide gisa, paperean eta sarean ari gara. Elkarte bezala, kultura arloan eta aisialdian. Bistan da lan asko dagoela egiteko oraindik. 25 urteko ikuspegia duzun aldetik, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?

Idoia Torregarai: A ze galdera! Ideia berrietara moldatu beharra dago beti. Ezin duzuna da 25 urtez gauza berdina egiten jarraitu. Zergatik? Ba gizartea ere aldatu egiten delako. Eta NOAUA!k hori oso ondo egiten jakin duela uste dut. Sare-rako saltoa eman behar izan denean, sareko saltoa eman du. Ikus-entzunezkoak pisu gehiago behar izan duenean, NOAUA!k pisu gehiago eman dio. Atal ezberdinak moldatu behar izan direnean ere, asmatu du moldaketak egiten. Beraz, uste dut proiektu bizia dela NOAUA!. Eta hori oso inportantea iruditzen zait. Ez gelditzea bertan goxo. Hobetzeko eta zerbitzu hobeago bat eskaintzeko grina izan du. Kontuan izan behar dugu NOAUA! komunikabide bat dela eta komunikabide batek garrantzia handia duela gure gizartean. Gizarteak ondo informatuta izateko eskubidea du eta beraz, kazetariok ere badaukagu kode deontologiko bat, ondo informatzeko. Beraz, argi ibili behar da. Oinarrizkoa den eskubide baten gainean ari gara. NOAUA!n hori primeran egin



25 urte eta gero, “NOAUA!k ondo funtzionatzen du eta badirudi ez duela ezerren beharrik, baina asko dago egiteko oraindik. Horregatik, eskertuko nuke herria eta NOAUA! berriro pixka bat gerturatzea”.

IDOIA TORREGARAI

“NOAUA!k ondo funtzionatzen du baina asko dago egiteko oraindik. Horregatik, eskertuko nuke herria eta NOAUA! berriro pixka bat gerturatzea”

da 25 urteotan. Momentu honetan NOAUA!rik gabeko Usurbil bat ez dut irudikatzen. Ez nik eta ezta beste askok ere. Zeren Usurbilen gertatzen denaren berri NOAUA!ren bidez jasotzen baitute. Erreferentzia nagusia da eta erreferentzia indartsu bat gainera. 25 urteren buruan hori lortzea oso inportantea da. Beraz, zorionak esan behar zaio lan-talde guztia.

Faltan botatzen dut betikoa. NOAUA! herriak sortutako proiektu bat da, bere bidea egin duena eta bere lan-talde profesionala daukana. Da-

goeneko 25 urte pasa dira eta dena eginda dagoela dirudi. NOAUA!k ondo funtzionatzen du eta badirudi ez duela ezerren beharrik, baina asko dago egiteko oraindik. Bai NOAUA! komunikabidean eta baita NOAUA! elkartearen ere. Horregatik, eskertuko nuke herria eta NOAUA! berriro pixka bat gerturatzea.

Belaunaldi berriak gehiago inplikatzak aso?

Badakigu beste garai batzuk direla. Ba beste era batera heldu beharko dugu eurengana. Ezin dugu orain dela 25 urteko ereduarekin funtzionatu gaur egun. NOAUA!n gazteak inguruan ditugu, aisialdiaren bidez eta beste arlo batzuen bidez.

Nora joan nahi dugun ikusteko, inportantea da jakitea nondik gatozen. Herri guztia gonbidatuko nuke beraz, NOAUA!ra gerturatzea, eta era batera edo

bestera parte hartzera.

NOAUA!ko atea beti daude irekita, ezta?

Beti daude irekita eta beti dago zereginik. Gauza txikietan zein handietan. Eta horrek ematen dio aberastasuna NOAUA!ri. Ez nituzke ahaztu nahi, urte hauetan guztietan herri aldizkari hau posible egin dutenak: Lan-taldekoak, banatzaileak, publizistak, kazetariak eta bazkideak. Bazkideek sortu zuten NOAUA!, euren izan zen lehenengo bultzada. 25 urte beranduago, bazkide horiek guztiak eskertu behar ditugu. Egin duten ekarpen ekonomikoaz gain, babes hori eskaini dutelako. “Hemen gaude, proiektu honetan sinisten dugu” esatera datorren babesa izan da. Beraz, hori esan gabe behintzat ez nuke bukatu nahi. Denon indarrak batuta ateratzen dela NOAUA! aurrera.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ERAMATEKO!!!

·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Etorkizuneko Urbil hizpide, duela 25 urte

Irailarekin batera, opor osteko lehen NOAUA! banatu zuten 1996ko irailaren 13an. Portadako argazkian neska etiopiar bat NOAUA! hamaboskaria irekita ageri zen argazkian, harpidetza sustatzeko. Azken orrian ere, publizitateaz gain, Vietnameko haur batzuk ageri ziren NOAUA! bana eskuan.

Behin barrura sartuta, ohi bezala, jaiotzak, ezkontzak eta hildakoak lehen orrian. Jaiotza asko izan ziren hilabete horietan. Zutabearen edo iritziaren atalean **Juanjo Gomez**, garaiko Udarregi Ikastolako zuzendariak idatzi zuen, DBHko lau mailak beren hezkuntza planera gehitu baitzituzten, Europako lege berriari jarraiki: “hezkuntza garai berri bati ekin behar diogu”. Berriketan atalean, **Arantxa Aranzadiri**, Agi-


nagako katekistari egin zioten elkarrizketa. Eskuragai dago orri honen bigarren atalean.

Kalejiran herritarren iritziak bildu zituzten hainbat gairen inguruan: frontoiko obrak, turistak, gas naturalaren hornikuntza, oporrak... Betiko legez, hurrengo orrian galdeketatxo egin zuten; kasu honetan herriko umeei zuzenduta. Honakoa izan zen galdera: gogorik ba al duzu eskolara itzultzeko? Erantzunak denetariakoak izan ziren, hiruk baietz erantzun zuten, eta lauk ezetz.

Ondoren, Santueneako jaien egitaraua atera zen “Santue-neako jaiak: santurik gabeko jai bakarrak” titulupean. Erreportajea, berri, oraindik proiektu baino ez zen **Urbil** merkatal zentroari buruzkoa izan zen. Usurbilgo Udalarekin **Eroski** kooperatibak itxitako hitzar-

menari buruzko erreportajea eskani zuten, eskuartean zuten proiektuaren nondik-norakoak azaltzeko. **Laurok** liburu-dendako **Patxi Borda** ez zegoen pozik proiektuarekin, Udalak proiektu horren ondorioz kalteuak izango zirenak ez zituelako kontuan hartu: “Udalak beti aurrerantz jo du proiektu honekin, eta benetan kalteuak garenok ez digu inolako lagun-tzarik eman”.

Porrusalda atala izan zen hurrengo, herriko gertaerei eskainirikoa. Bus zerbitzuetan murrizketak izan zirela eta, herritarrek haserre zeuden garai hartan. **Patxi Añorga** presoak zigorraren hiru laurdenak bete zuen, eta hainbat kirol ikuskitan izan ziren udan. Kirolen atala, herriko emakume futbolariari eskaini zieten. Denboraldia hastear zela, herrian taldea



1996ko irailaren 13an plazaratu zen NOAUA!ren hirugarren zenbakia.

osatzea lortu zuten, eta gogotsu ekin nahi zioten denboraldiari.

Herriko taldeei eskainitako atalean, **Ana Lopez Etumeta Euskaltegiko irakasleak** herriko euskaldun kopurua txalotu zuen: “Usurbil euskaltegi handi bat da”.

Duela 25 urte

NOAUA! 3. zenbakia 1996ko irailaren 13an

“Mutilak “faborez” esanez etortzen zitzaizkigun”

1996an kaleratutako hirugarren NOAUA!n, elkarrizketa proposamena luzatu zioten Arantxa Aranzadiri, garaiko Aginagako katekistari. Horra hor elkarrizketa hura hitzez hitz.

NOAUA! Gaztetan asko disfrutatutakoa omen zara.

Arantxa Aranzadi: Bai, asko, baina parrandarik batere egin gabe. Nik lehenengo parranda Aginagak Kontxa irabazi zue-nean egin nuen.

Nola disfrutatzen zenuen?

Bostak aldean hasten zen trikitixa eta dantza eginez. Mutilak “faborez” esanez etortzen zitzaizkigun. Patrikan kakahueteak edo karameloak bazituzten dantza egiten genuen, eta bestela, ez.

Nongo festetara joaten zine-

ten?

Aginaga, San Esteban, Usurbil eta Zubietara, normalean.

Eta bueltatzeko ordurik ba al zen?

Gure etxean bai. Guk seieta-rako etxera etorri behar izaten genuen amaren aginduz. Baina, hala ere, gaurkoek adina disfrutatzen genuen.

Eta orain?

Bai, bai, nik beti. Orain ere eskursioak egiten ditugu, eta mugitzen gara.

Eta katekista izanda ere disfrutatzen al da?

Noski. Gainera, niri irekitzen eta lagunak egiten lagundu dit. Askok ikasi dut.

Zenbat denbora daramazu katekista lanetan?

Hogeita bi urte, larunbatero la-

runbatero joanez.

Haurrak gustora joaten al dira?

Askok gurasoek bidaltzen dituztelako joaten dira, baina badaude gustora joaten direnak ere.

Jaunartzea egiten dutenean, ba al dakite zer den, ala opariengatik egiten dute?

Oparietaz hitz egiten egoten dira, baina elizako ospakizunekin ere ilusionatuta ibiltzen dira.

Katekista lanetatik jubilatzeko asmorik ba al duzu?

Ez, ez, oraindik behintzat ez.

Ilusiorik egin al dizu jaso berri duzun lehen pentsioak?

Bai, ilusioa beti egiten du, nahiz eta asko ez izan.

Eta merezitakoa al duzu?

Nik uste dut baietz. Hamar ur-



NOAUA!ren 3. zenbakian Arantxa Aranzadi elkarrizketatu zuten.

tetan ibili nintzen Michelinera bizikletaz joaten. Gainera, bidean binaka joaten baginen, Guardia Zibilek multa jartzen ziguten.

Jubilatuta egotea eta zahartzaroa, aldi berean datoz?

Ez dut uste. Niri behintzat ez zait iruditzen jubilatuta naizenik, eta dauzkadan urteak dauzkadanik.

“Izan zirelako gara” oroimen ekitaldia, Usurbil 1936 bilgunearen eskutik

85 urte beteko dira irailaren 18an, tropa faxistak Usurbilen sartu zirenetik. Eguna ez da oharkabean igaroko; Usurbil 1936 herri bilgunea “Izan zirelako gara” izeneko ekitaldi berezia prestatzen ari da, larunbat horretan 18:00etan Usurbilgo frontoian ospatuko dena. Bertara joan nahi duenak aurrez izena doan eman dezake usurbilkultura.eus plataforman. “Halako justizia poetikoa egin” eta “errepresioa jasan, erahil edo desagertu zirenak, erbestera joan behar izan zutenak” omendu nahi dituzte. “Gehientsuenak ez daude zoritxarrez, horregatik senideen bidez beraiek omendu nahi ditugu. Ekitaldi hunkigarria izango da, ezustekoz beterikoa”, aurreratu dio NOAUA!ri Usurbil 1936 herri ekimenaren sustatzaileretako batek, Aitor Azurkik. Herritarrei barrualdea mugiaraziko dion hitzordua datorkigu, gertatu zena oroituz eta elkarte zertan ari den erakutsiko duena. “Herrikeriaren sortutako ekimena”, hastapenetik “elkarrekin oraindik gorpuztu gabe zegoenetik ideia argi genuen denok”. Garai hartan bizi eta



Usurbil 1936 bilgunearen bueltan lanean dabiren bolondres taldeak eginiko bileretako baten irudia. Tropa faxistak udalerrira honetan sartu zirenetik 85 urte beteko diren irailaren 18rako omenaldi berezia prestatzen ari dira.

“USURBIL 1936”

“Ekitaldi hunkigarria izango da, ezustekoz beterikoa”, aurreratu du Usurbil 1936 elkarteak

isilarazitakoa argitaratu atera zezakeen bide horretan, mugari garrantzitsua. “Beste pauso bat Usurbilgo herrikeriaren zor diogun memoria historikoaren lanketan”. Elkarlan horretara batu da Usurbilgo Udala, baita “oso soslai ez-

berdineko bolondresak ere”. Besteak beste, memoria historikoaren alorrean lehenik lanean aritutako herritarrek, “senideak inplikatuak izan zituztenak” edota “memoria historikoaren eta giza eskubideen kontzientziak” erakarritakoak ere badira.

Gudalekuak berreskuratzea, hurrengo urratsa

Urtebete pasatxoko ibilbidea egin du jada memoria historikoaren arloan lanean ari den herri bilgunea. Parte hartzean oinarrituta informa-

zioa, lekukotzak biltzen aritu dira. Aurrera begira, hurrengo fase garrantzitsua, guda-lekuen berreskuratzea izango da. “Hor ere ezustekoak izatea espero dugu”. Bi faseotan bildutakoa erakutsiko dute gero, eta azkenik egindako lana argitaratuko dute, jasoa gera dadin. “Oso pozik gaude parte hartze prozesuan herrikeriaren emandako erantzunarekin. Boluntario talde indartsua dugu, gogotsu, grin handiz ari dena”.

Datorren astekarian, omenaldi honi buruzko xehetasunak.

Aztarna berrien bila

“Frankistak Usurbilera sartu eta ondorengo egunetan fusilatuz zituzten 7 usurbildarren arrastoak aurkitu ditugu. Saiatu garen arren, ez dugu batzuen familiarik topatu”, adierazi dute Usurbil 1936 elkartetik. Herrikeriaren laguntza eskatzen diete, “informazioa biltzeko. Norbaitek ondorengo senide, lagun edo auzokoren bat ezagutuko balu, elkarteari jakinaraztea es-

kertuko genioke. Era berean, beraien argazkirik balu, gure eskura jartzea ere eskertuko genioke”. Elkartearekin hartuemanetan jartzeko bideak dituzte: 665 724 752 / 36kogerra@usurbil.eus. Herrikeriaren hauen inguruko xehetasunak jaso nahi lituzkete:

■ Kosme Yagüez Beristain.

Zubietako maisua zen eta 30 urte zituen hil zutenean. Aita tren-gelotikiko arduraduna zuen.

■ Jose Galarmendi Balerdi.

Kalezarko Kaxkoenean bizi zen. 50 urte fusilatuz zutenean. Bere familiak alde egin zuen eta bi semeek ere errepublikaren aldeko frontean galdu zuten bizia.

■ Romana Zubiria Urruzmendi.

Aginagan jaioa 1891 aldera eta seguru asko Iyarbe Beheko base-rrian bizitakoa. Aginagako elizan ezkondu 1923an eta Donostiara

joan zen bizitzera. Aita Pedro Ignacio Zubiria Amondarain eta ama Mikaela Urruzmendi Calparsoro zituen.

■ Jose Heredero Pineda.

Usurbilen jaioa, bertan ezkondua eta bizitakoa gerora Igeldora joan bazen ere. Aita eta ama Usurbilgo maisu-maestrak ziren. Kasu honetan senideak aurkitu ditugu, baina kalitate handiko argazkirik ez.

Euskara ikasi, aukerak biderkatu

Ikasturte zaila igaro dute Buruntzaldeko euskaltegiek. Alabaina, pandemia ez da oztopo izan jardunari eusteko: buru-belarri aritu dira lanean eta kalitatezko hezkuntza bermatu diete herritarrei. Indartsu sentitzen dira 2021-2022 ikasturteari begira.

Nork bere arrazoiak ditu udako oporraldien biharamunean euskaltegi hurreratzeko. Aspaldi logelako mesanotxean gordetako hizkuntza berreskuratze helburua dute hainbatetik; seme-alabei etxeko lanekin laguntzeko desira, beste zenbaitetik. Ama hizkuntzan sakonago trebatzeko premia ase nahian dabilenik ere izaten da, baita titulua eskuratu nahi duenik ere. Bada, euskara klaseak jasotzeko arrazoi adina aukera bermatzen ditu Buruntzaldeak: orotara, zortzi euskaltegi daude eskualdean; bina Lasarte-Orian nahiz Hernanin; bana, berriz, Andoainen, Astigarragan, Urnietan eta Usurbilen.

Hala, astelehenetik ostiralera, goizez zein arratsalde, eskaintza zabala dute ikasleek euskara maila guztietan, bai aurrez aurreko klaseetan, bai autoikasuntzaren bidez. Hori ez ezik, gelatik kanpo ere euskaraz trebatzeko makina bat baliabide



Buruntzaldeko euskaltegien zein Udaletako euskara zerbitzuen ordezkariak Urnietan ateratako argazkian. Egilea: Aiurri.

ESKAINITZA ZABALA

“Astelehenetik ostiralera, goizez zein arratsalde, eskaintza zabala dute ikasleek euskara maila guztietan. Bai aurrez aurreko klaseetan, bai autoikasuntzaren bidez”

ipintzen dituzte euskaltegiek herritarren eskura. Bestalde, diruz laguntzen dute Buruntzaldeko udalek euskara ikasteko prozesua: herri batetik bestera kopurua aldakorra izan arren, guztiek bermatzen dute babes ekonomikoa, zenbait kasutan ikastaroa doako bihurtzeraino. Horrez gain, HABEk laguntzak ematen ditu, baldin eta erakundeak ezarritako maila edota baliokidea eskuratzen bada.

Oztopoak, aukera bihurtuta

Maldatsua izan zen iragan urte amaiera eskualdeko euskaltegi-gientzat pandemia dela-eta. Ikasturtea apur bat kezkatuta hasi zutela du gogoan Aize Otañok, Hernaniko AEK-ko irakasleak; azken hilabeteak “bereziak” bezain “arraroak” izan dira erakundearentzat. Harekin bat dator Lorendiñe Usarralde Lasarte-Oriako Udal Euskaltegi zuzendaria, ezjakin ekin baitzioten euskara klaseak emateari: “Beldurra sentitzen genuen, oro har, gizartean ere izua zelako nagusi”.

Joan den ikasturtean, orotara, 771 herritarrek hartu zuten euskara ikasteko konpromisoa, musukoen nahiz gel hidroalkoholikoen artean. Egoeraren konplexutasunarekin ohartuta, goitik behera berrantolatu zi-

tuzten euskaltegiak, pandemiari aurre egiteko osasun-neurriak errespetatzeko xedez: ikasgelen aireztapena, distantzia soziala, garbitasuna...

Ikasgelako girotik harago, askotariko eragozpenak izan dituzte euskaltegiek beren egunerokoa gauzatzeko, besteak beste, eskola-orduetatik kanpo antolatutako hitzorduak egiteko. AEK-ko kideek, gainera, ondo baino hobeto oroituak dute ikasturtea, koronabirusak galarazi egin baitu Korrika antolatzea. “Gurean utzitako hutsune ekonomikoa nabaria da”, dio Otañok, “baina gizartean du eragina euskararen aldeko aldarrikapena egun horietan kalera atera ez izanak”.

Zailtasunak zailtasun, egoitzapen lanei dagokienez, “lan txukuna” egin dutelakoan dago Usarralde, “baliagarria izan da ikusteko zein baliabide ditugun eskura”. Beren gaitasuna frogan jarrita, buru-belarri aritu dira lanean irakasle guztiak. Hala ere, goraiatzeko da, zuzendariaren aburuz, ikasleek izandako jarrera, erantzun ona eman baitiote asteroko martxari. Usarralderekin bat etorrita, lana ondo egiteko gai direla agerian gelditu da Otañoren-tzat: “Berrasmatzen, moldatzen jakin dugu”.

Baldintzak eta laguntzak

Euskararekin harreman estuago izateko borondatez eman zuten izena euskaltegiaren Elaia Fadriquek, Elena Jimenezek eta Asier Erkiziak. B2 mailan aritu dira lehenbiak; C2 mailan, azkena. Ez bairik gabe erronkari modu arrakastatsuan erantzun diote; euskara ikasi dute, bate-tik; eta, bestetik, askotariko jendea ezagutzeko aukera izan dute.

Gainera, euskal komunitate-
ra gerturatzeko abagune ederra izan da ikastaroa hiru ikasleentzat. Esaterako, Erkizia, egun, segurtasunez mintzo da euskaraz, alegia, arauak ikasita, “beldurrik gabe” jarduten da “edonon eta edonorekin, egoera formaletan edo lagun artean”. Gauza bera gertatu zaio Jimenez, mihia zorrozten lagundu baitio euskaltegiak: “Garapen handia nabaritu dut;

oso pozik nago. Hizkuntzari dagokionez, oztopoak gainditzen laguntzen du euskaltegiak”.

Halaber, ados dago hirukotea: “Hizkuntza bati bihotza jarri behar zaio, sentimendua jarri behar diozu ikasketa-prozesuari”; eta horixe lortu dute euskaltegiari esker, hizkuntzaz harago joaten, herriko harremanak saretzen, ahalduntzen eta aukerak biderkatzen. Ateak zabalik dituzte,

horrenbestez, euskaltegiek, euskara ikasi ez ezik, beste ohitura eta mundu ikuskera aberasgarriak ere ezagutu nahi dituzten herritarren-tzat.

Usurbilen

■ Baldintzak: Gutxieneko asistentzia: %80.

■ Laguntzak: guztiei, matrikularen %100. 600 eurora arteko muga.

*Buruntzaldeko udalek %70 - %100
artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!*

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**

Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoingo AEK
Plazaola, 2
943 591 704
andoain@aek.eus

LASARTE-ORIA

Munterri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea, 17 behea
607 625 233
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi, 11
943 557 801 - 607 592 864
Zilegi eskola: 663 043 314
hernani@aek.eus

USURBIL

Etumeta AEK Euskaltegia
Kale Nagusia, 43 behea
607 609 379
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia, 48
607 610 687
astigarraga@aek.eus

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren gainean)
943 361 621
euskaltegia@lasarte-oria.eus

Hernaniko Udal Euskaltegia

Karobieta, 63
(anbulatorio zaharra)
943 331 896
euskaltegi@hernani.eus

URNIETA

Urnietako AEK
Errekalde kalea, 1 (tarteko oina)
662 338 747
urnieta@aek.eus



Andoingo Udala
Goiko plaza, 2/g
20140 Andoain



Astigarragako Udala

Astigarragako Udala
Foru enparantza
20115 Astigarraga



Hernaniko Udala

Hernaniko Udala
Gudarien plaza, 1
20115 Hernani



LASARTE-ORIA

Lasarte-Oriako Udala
Kale Nagusia, 22
20160 Lasarte-Oria



Urnietako Udala

Urnietako Udala
San Juan plaza, 2/g
20170 Urnieta



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udala
Jose Martin Sagardia plaza
20170 Usurbil

Mikel Artola, erizaina ZIUn: “Eskarmentu handia zuten profesional askok alde egin dute”

Zainketa Intentsiboetako Unitatean lanean, halaxe pasa ditu pandemiako hilabete gogorrenak. Mikel Artola ZIuko erizainak hilabete zailak bizi behar izan ditu gaixoak zaintzen, eta udan lasaixeago ibili badira ere, argi dauka pandemia ez dela oraindik amaitu. NOAUA!rekin azken hilabeteetako bizipenak partekatu ditu.

NOAUA! Pandemia egoera hau nola ari zarete bizitzen ZIUn?

Mikel Artola: ZIUn errealitate desberdinak bizi ditugu azken hilabete hauetan. Ekainean, txertaketaren ondotik ZIUn ere eragina nabaritu genuen, eta bitan banatu genuen unitatea, erdi eta erdi. Ordura arte, Covid gaixoen zati handiagoa hartzen zuten besteek baino. Orokorrean, bi beldur nagusi ditugu ZIUn, Covida duten gaixoen kopurua igotzea bate-tik, kontuan hartuta neurriak malgutuz ari direla etengabe. Txertaketak lasaitasun puntu bat eman digu, baina oraindik denak ez daude txertatuta, eta hori oraindik ere arazo da. Beste arazoa da, ZIUn eskarmentu handia zuten profesional askok alde egin dutela egoeraren on-



“Patologia berriak hasi gara ikusten”, azaldu digu Mikel Artola Zainketa Intentsiboetako Unitateko (ZIU) erizainak.

MIKEL ARTOLA

“Lan egoera eramanezina da: opor falta, egoera berriei aurre egiten ez jakitea, behar baino ordu gehiago sartzea...”

dorioz, eta orain jende berri asko gaude. Patologia berriak hasi gara ikusten, eta unibertsitatean oso gutxi aztertzen den gaia da ZIUrena, beraz, beldurra ere badaukagu alde horretatik. Beteranoentzat ere arazoa da hori, berriak gare-

noi laguntza eman behar baitigute, eta saturatu egiten dira. Zirkulu batean sartuta gaude, eta zaila da hortik ateratzea. Kudeaketa arazo larria dago, eta lan egoera eramanezina da: opor falta, egoera berriei aurre egiten ez jakitea, behar baino ordu gehiago sartzea...

Segurtasun neurri zorrotzak bete beharko dituzue, ezta?

EPIak gogortu egin dira Covid gaixoen gunean. Denbora gutxi daramatenen kasuan, gure lana ez da oso desberdina, intubatuta egoten baitira. Arazoa izaten da kronifikatzen hasten direnean, 20-30 egun baino gehiago daramatzenenean, mugitu egin behar dira eta janaria eman behar zaie. Hiru aste mugitu gabe egon diren gorputzak izaten dira, eta konziente badaude ere, ezin dira mugitu. Beraz, erizainok egin behar ditugu zainketa lanak %100ean. Burutik oinetarainoko jantzi berezia jantzita sartzen gara. Pentsa udan eta egun beroetan zer den hori. Etxera egunero izerditan blai. Lanera joateko gogoia kentzen dit honen, baina eskerrak bokazio handia daukadan.

“Egoera gogorrek pasa ditugu ZIU unitatean”

NOAUA! Lana uztea pentsatu duzu?

Mikel Artola: Ez, ez. Egoera gogorrek pasatu ditugu, baina ZIuko lanari gustua hartzen hasi naiz. Gustua hartu diot behin ZIuko lana nolakoa den ikasi dudanean. Otsailetik nago ZIU unitatean, eta hiru hilabete naramatzanean esperientzia dezente zeukaten horietakoa nintzen, beste

asko ni baino berriagoak ziren. Pentsa lau hilabete inguru lanean daramatzan norbaitek berriagoei gauzak azaldu beharra zer den. Gaixoak ere eskarmentuaren arabera hartzen ditugu, hau da, esperientzia gehiena dutenek gaixorik okerrenak zaintzen dituzte, eta berriek ondoen daudenak. Gaixo bat okerrago jartzen denean, berriei beteranoengana jotzen

dute, eta askotan aurkitzen gara bost gaixo batera zaindu beharrek, berez ZIUn erizain bakoitzak bi gaixoren kargu egin behar duenean.

Plantako lanarekin zerikusi handirik ez du lan horrek, orain behintzat.

Bat ere ez. Plantan 20 bat gaixo zaintzen ditu erizain bakoitzak, eta ZIUn, teorian

behintzat, 2. ZIUn zerbait gaizki eginez gero, pertsona baten bizitza arrisku larrian jar dezakezu. Azkenean, larritasun maila izugarria da. Sendagai izugarri eman behar zaizkie, garbitasunari dagokionez ere dena egin behar zaie, kablez josita egoten dira... makinaria guztia-rekin oso kontu handiz ibili behar da.

“Hilabeteotan gaixo gehiago ikusi ditut hiltzen, bizirik ateratzen baino”

NOAUA! Kanean badira negazionistak, birusik ez dela diotenak.

Mikel Artola: Jendea musukorik gabe asko ibili da kalean, sagar bat jaten arratsalde guztian musukorik ez jartzeko eta abar. Lehen ZIUan oso zaila zen gela guztiak betetzea, eta otsailetik udara bitartean oso oso gutxitan izan dugu gelaren bat libre. Gela libre geratu bezain pronto beste gaixo bat sartzen zen. ZIUko zainketaren datuak begiratu gero, gaixoen biziraupenerako aukera oso altua zen lehen, baina orain birusarekin datu horiek goitik behera erori dira. Nik gaixo gehiago ikusi ditut hilda joaten, bizirik ateratzen baino.

Erizain modura gogorra izan behar du momentu horretan hor egon beharrak.

Gogoan dut kasu bat. Sei bat senitarteko boxaren kanpotik begira zeudela negarrez eta oihuka, eta ni han. Haiek aitari agur esaten, egoera latz horretan, eta ni horren guztiaren erdian. Behin gaixoa hil eta gero,



“Laugarren olatua izan omen zen okerreana. Neguko hilabeteak, batez ere. Ni otsailean hasi nintzen eta ez ninduen olatu osoak harrapatu, baina lankideek hori diote”.

MIKEL ARTOLA

“Otsailetik udara bitartean oso oso gutxitan izan dugu ZIUko gelaren bat libre”

ez dizkiogu hodiak eta gainontzeko materiala kentzen; da-

goen bezala eramaten dute tanatoriora. Tanatorioko prozesu guztia galtzen da, eta prozesu hori doluarentzat ezinbestekoa da.

Momenturik gogorrenak noiz bizi izan dituzue?

Laugarren olatua izan omen zen

okerreana. Neguko hilabeteak, batez ere. Ni otsailean hasi nintzen eta ez ninduen olatu osoak harrapatu, baina lankideek hori diote.

Uda aldera hobekuntza nabaritu genuen txertaketaren eraginez, eta pixkanaka lasaituz doala dirudi berriz ere.

“Geroz eta gizonezko erizain gehiago gaude”

NOAUA! Betidanik erizaintza lanbide feminizatutzat hartu izan da.

Mikel Artola: Erizaintzan emakume gehiagok egin izan du lan betidanik gizonek baino, hortik aurrera ez da besterik. Ez da emakumeen izaerari lotutako lanbide bat edo askotan erabiltzen diren argudio zentzugabe horiei lotutako ezer. Egia da geroz eta gizonezko erizain gehiago gaude. Unibertsitatean ere nabari da igoera hori. Nire taldean 11 mutil ginen. Erizaintza oso

bokazionala da, eta medikuntza egiteko notak eman ez dion jendearentzat osasungintzari lotutako ikasketak egiteko aukera. Zaintzari lotutako sen gutxiago izan genezake mutilek orokorrean, baina ez dakit kontzeptu hori zeri lotuta egon daitekeen. Hezkuntza kontua izan daiteke edota orokorrean umeez amaren figuran ikusten duten berezko hori.

Zuk baduzu sen hori?

Nik erizaintza oso bokazionala dut. Erizaintzan lanean dabil-

tzan gizon asko ikusten ditut oso ondo egiten dutenak beren lana, eta gaixoez ere benetan haien lana zoriondu dutena. Emakume erizain bikainak ere badaude. Erizain txar gutxi ezagutzen ditut, baina gehienak emakumeak dira. Normala da neurri batean, orokorrean erizainen ehuneko gehiena emakumeak direlako.

Gaixoei ez die atentasia deitzen gizon erizainak ikusleak?

Askotan esaten didate: “zer,

datorren urtean medikuntza egingo duzu?”. Askok lotsarik gabe gisa horretako aipamenak egiten dituzte. Nik beti esaten diet ez dudala mediku izateko inolako intentziorik. Batzuk gizon batek zaintzea ondo hartzen dute, beste batzuk ez dira oso eroso sentitzen, beste batzuk errespetu gehiago izaten digute gizon izate hutsagatik, eta beste batzuk alderantziz. Denetik dago, baina printzipioz beti gauza positiboak esaten dizkide.



Sokadantzan batu ziren zubietarrak, ezohiko Santioetan.



Herri kiroleko erakustaldiak girotu zuen Santio eguna Zubietan.



"Mikra" kaleko zirku garaikideko saioa antolatu zuen Zubieta Lantzenek.



Santuenea Elkarteak zinema plazara atera zuen uztailaren 17an.



Ibilaldi batekin abiarazi zituzten Urdaiagan, ezohiko Xanistebanak.



Emakumeen bertso saioak hartu zuen Urdaiagako plaza abuztuaren 7an.



Viafara herriko talde berriak agurtu zituen Urdaiagako ospakizunak.



Haur jolasekin itzuli ziren Kultur Birarekin bat egin zuten Atxegaldeko jaiak.



Bertsolari belaunaldi gazteak gonbidatu zituzten Atxegaldera.



Atxegaldeko jaietako mus txapelketako lau bikote sarituak.



Sareren bizikleta martzak Usurbil zeharkatu zuen uztailearen 24an.



Zapatisten Europako birari lotuta, elikagai biketa bideratu zuten Sutegin.



Baba Beltz Txikiaren kofradiakoak Saizar sagardotegian batu ziren.



Usurbilgo gaikako biketa hizpide, UEU-ren Jakin Jardunaldietan.



Laboaren Uztaileko kontzertuetako bat; Ibon RG eta Enrike Hurtadoren.



Floxbin taldeak Kultur Biraren baitan Aginagan eskainitako kontzertua.

Gregorio Arbeloa zendu da

Ospakizun eta jardueren artean, albiste goibelik ere utzi digu azken txanpara heldu den udak. Gregorio Arbeloa Irigoyen margolaria zendu zen abuztuaren lehenean.


Bi egun beranduago egin ziren bere aldeko hileta elizkizunak Salbatore Parrokian. Emaztea zendu eta hilabetera hil zen Usurbil bizileku izan zuten margolaria.

Urte luzez Usurbilen bizi arren, Atarrabian (Nafarroa) jaio zen duela 80 urte, 1941. urtean. Arte grafikoen eremuan abiarazi zuen bere sor-

kuntza ibilbidea. 1957. urtean Donostiako Arte eta Lanbide Eskolan murgildu zen eta handik 1961ean Gipuzkoako Artisten Elkartera. Estreinakoz 1975. urtean jarri zituen ikusgai bere sorkuntza lanak Donostian. Euskal Akuarelarien Elkarteko kidea zen, bilgune honen bidez hainbat erakusketara antolatu izan ditu bere sorkuntza ibilbidean zehar, Euskal Herri luze zabalean.

Usurbil erretratatu zuen

Margolari kostunbrista, landa eremu nahiz hirigunea islatzea gustuko zuena. Sortze lan eder



Abuztu hasieran zendu zen Usurbilen herrikide genuen Gregorio Arbeloa Irigoyen margolaria.

askoak eginak ditu; tartean, bizileku zituen inguruok erretratatu izan ditu. Usurbil Bizkarre ingurutik marraztu zuen, Urdaiaga, Zubietako errebote

partida, Dema plaza... Bere sortze lan bat baino gehiago blog honetan ezagutu ditzakezue: <http://arbeloa-gregorio.blogspot.com>

1389ko dokumentu baten aurkikuntza

Usurbil eta Zizurkil arteko mugak finkatu zituen 1389ko dokumentua aurkeztu zuten Orreagan, hilaren 1ean. Aurkezpenean izan ziren Usurbilgo eta Zizurkilgo alkateak, Agurtzane Solaberrieta eta Iker Urruzola hurrenez hurren; Orreagako artxibozain David Ascorbe; Orreagako priore Bibiano Esparza; eta Aranzadiko ikertzaile Yoseba Alonso.

2019ko abuztuan Asier Agirresarobe, Yoseba Alonso eta Javi Castro ikertzaileak “Usurbilgo mugarrak eta Andatzako erroterri harrobiak” lana egiten hasi zirenean, Orreagako artxiboan aurkitutako dokumentu batek Zizurkilaren ikusitako beste bat gogorarazi zion Alonsok, eta hala egin zuten aurkikuntza. 2019ko urrian, Yoseba Alonsok gestio batzuk egin zituen Rosa Ayerbe Erdi Aroan adituarekin Orreagako dokumentua transkribatu ahal izateko.

Dokumentu zatitua

Aurkikuntza gutun zatitu bat da, non aldeetako batek bi pergaminu dituen elkartuta, eta Orreagako Errege Kolegiataren artxiboan kontserbatuta dago. Beste zatia Zizurkilgo udal-arte-



Dokumentuaren Orreagako aurkezpenean parte hartu zuten ordezkariak.

AGURTZANE SOLABERRIETA:

“Mugarri hauek izan ginenaren lekukotza dira eta gaur garenaren oinarri”

txiboan gordetako pergaminu bat da, mugarren epaia zehazten duena.

Mugarri horietako batzuk, hiru gutxienez, Orreagako gurutze-basoaren ikurra dutenak, bertan kontserbatzen dira, eta Zizurkil eta Usurbilen arteko mugak zehazten dituzte. “XIII. mendean Orreagako Santa Maria monastegiak Andatza mendia jaso zuen dohaintzan. Zehazki, 1388koa da Martin Gonzalbiz, Achegako jauna (Usurbil) eta Orreagaren

arteko akordioa. Nafarroako Kolegiatarentzat garrantzi handiko mendia zen Andatza, besteak beste, bertako basoaren ustiatetarako eta transhumantziarako. Orreaga eta Zizurkilaren artean gatazka sortu zen mendiaren jabetzagatik eta mugengatik, eta epaiketara jo zuten.

Azkenean, 1389an hartu zen Andatzako eremuari buruzko erabakia, Orreagako Santa Maria Ospitalaren eta Zizurkilgo komunitatearen artekoa. Epaia honetan eztabaidagai ziren mugarrak finkatu ziren dokumentu hartan.

Zizurkilgo artxibategian gordetzen da epaiketaren ebazpen originala, pergaminu dotorean idatzitakoa”, argitu zuen Usurbilgo Udalak.

Andatza, aberastasun eta baliabide askoren iturri

“Mugarri hauek izan ginenaren lekukotza dira eta gaur garenaren oinarri. Balio dezala elkarlan eder honek bi herrien arteko zubiak erakitzen jarraitzeko, bi herrien hartuemanak estutu eta sakontzeko, non eta paraje eder batean, Andatza”, adierazi zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta, herriaren dugun altxorra, Andatza goraiatzearrekin batera. “Aberastasun, aukera eta baliabide asko eskaini izan ditu mendez mende”, nabarmendu zuen.

Harriaren lanketarako baliatu izan zuten Andatza: horren lekuko, 24 harrobi eta 132 erroterri topatu dituzte Aranzadiko ikerlariek. Basogintza ere Andatza garaturiko beste jardura ekonomikoetako bat izan da historikoki, “hori izan zen Orreagaren arazoia Andatzara jotzeko”.

Bertatik ateratako egurra ere baliatu zen Usurbilgo alkateak gogorarazi zuenez, XV-XVI mendeetan Aginagan lanean jardun zuten ontzioletarako. Edota hor dugu menditik jais ten zaigun ura ere; horretan ere mendi aberatsa, kalitatezkoa, zentralak egiteko baliatu izan zutena.

Einean guraso eskolak, ikastaro eskaintza prest

Zabalik dute izen ematea Einean guraso eskolak antolatutako ikastarootan:

■ Oinarrizko argazkilaritza digitala I eta II

Iraupena: astean behin 1,5 ordu, urria-abendua artean.

Adina: 16 urtetik gorakoentzat.

Irakaslea: Ibai Arrieta (635 70 14 73) / argazkikastaroa.usurbil@gmail.com

Oharra: ikastaroaren bigarren zatia egiteko, lehenengo zatia egina izatea edo argazkilaritza digitalari buruzko ezagutza izatea ezinbestekoa izango da.

■ Laboreak (bolilloak, “punto cruz”, gantxilloa...)

Iraupena: astean behin bi ordu, urrian hasi eta ekainera arte.

Irakaslea: Juanini (609 41 38 83).

■ Yoga (luzaketak, arnasketak, lasaitzea...)

Iraupena: astean behin 1,5 ordu, urria-ekaina artean.

Irakaslea: bi dira: Katia (636 71 15 14), Sebas (605 72 28 25).

■ Pintura (oleoa, akuarela, pastela...)

Iraupena: astean behin 2 ordu, urria-ekaina artean.

Irakaslea: Susana (609 41 38 83).

■ Eskulanak

Iraupena: astean behin 2 ordu, urria-ekaina artean.

Irakaslea: Susana (609 41 38 83).

Zehaztasunak: teknika ezberdinak ikasi, gauza politak sortzeko edo berritzeko.

■ Sabel dantza eta hip hop

Iraupena: astean behin 1,5 ordu, urria-ekaina artean.

Irakaslea: Uarda (637 25 68 51).

Iraileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa**ARIES**

Ikasturte hasiera ero samarra izango da zuretzat, ate berri asko irekiko zaizkizulako. Hileko aholkua: Baina kontuz aire-korronteekin!

**CANCER**

Bihotz kontuek loa kenduko dizute hilabete honetan, eta gora behera handiak izango dituzu. Hileko aholkua: Etxean desfibriladorea edukitzea komeni zaizu.

**LIBRA**

Eta berri bati ekiteko garai aproposa duzu hauxe. Baliatu ezazu beti egin izan nahi duzun hori egiteko. Hileko aholkua: Iratzargailurik gabe bizitzeko, adibidez.

**CAPRICORNIUS**

Maskarillak traba asko egiten dizu, baina gauza onak ere baditu: bibotea ez duzu zertan depilatu eta barre faltua egiteko ere oso baliagarria da. Hileko aholkua: Terrazatik harata bizitza badago!

**TAURUS**

Kezkatuta zaude martxotik hona irabazi dituzun kilo horientatik eta garai aproposa duzu kirol pixka bat egiten hasteko. Hileko aholkua: Bizikleta estatikoa erosteko une aproposa da.

**LEO**

Maskarilla eramaten bikaina zara: belarritik zintzilik, kokotsean, ukalondoan,... Hileko aholkua: Noizean behin eramane behar den tokian!

**SCORPIUS**

Teletanera bueltatzeko beldur zara, ordainpeko lana egin ordez etxeko lanetan aritzen zarelako gehiago. Hileko aholkua: Prestatu ezazu bulegoa ganbaran edo so-toan, bake pixka bat izateko.

**AQUARIUS**


Naturarekin bat egiteko izugarrizko gogoia izango duzu hilabete honetan, baina kontuan izan Euskal Herriko tontorrek jendez gainezka daudela. Hileko aholkua: Andatza hor izanda, zertarako behar duzu gehiago?

**GEMINI**

Festetarako gogoia duzu, baina gogoratu hamar pertsona baino gehiago elkartzeari dela komenigarria. Hileko gomendioa: Ba al dituzu 10 lagun?

**VRGO**

Koronabirusak ez du zure urtebetetze eguna zapuztuko, baina osasun neurriak hartu beharko dituzu. Hileko aholkua: Tartako kandelak ez itzali maskarilla jantzita duzula!

**SAGITARIUS**

Maitasunak zure atea noiz joko zain zaude, baina gauzak ez dute horrela funtzionatzen. Mugitzeko garaia duzu. Hileko aholkua: Zergatik ez duzu Noau!n iragarki bat jartzen?

**PISCIS**

Triste xamar zaude lanera bueltatu zarelako eta hondartzara joateko denbora gutxiago duzulako. Hileko aholkua: Oria ibaian hankak sartuta egotea ez da batere plan txarra.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

www.noau.eus
USURBILGO ATARIA

Antxi
Parrilla
latetxea
bazkariak EGUNERO
·afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361

Aranerrekera isuritako ur zikinek etenik ez, Anerrekaren esanetan

Ez da halako eskaera bat NOAUA!ra helarazten duen lehen aldia. Anerreka Ingurumen Elkarteak oraindik egun Aranerrekera ur zikinak isurtzen segitzen direla ohartarazi du berriro. “Aspaldiko arazoak bere horretan dirau, Kalezar eta Kale Nagusiko etxebizitza batzuen ur zikinak Aranerrekera isurtzen jarraitzen baitute, umeak jolasten diren gunera zuzenean isuriz”, dio Anerrekak helarazitako idatziak.

Isurketok eragindako kalte bikoitzaz ohartarazten du Anerrekak. “Ingurumenari egiten zaion kalteaz gain, umeen osasuna arriskuan jartzen da isurketa horien ondorioz”.

Ur zikinak Anerrekatik kolektorera desbideratzea premiazkotzat jotzen du ingurumen elkarteak. “Premiazkoa ikusten dugu etxe horien ur zikinak dagokien kolektorera isurtzeko behar beharrezkoa den obra txikia egitea”, diote.

Maiatzean hala jakinarazi ziotela Usurbilgo Udalari gogorazten du Anerrekak, “eta orain, baita URA Agentziari ere”. Uda-berrian hain zuzen, auzolanean erreka bazterrak garbitzen aritu ziren arren, “erakundeei beraien ardurak betetzea eskatzen diegu,



Anerreka Ingurumen Elkarteak eseki duen pankarta.

ANERREKA

“Ingurumenari egiten zaion kalteaz gain, umeen osasuna arriskuan jartzen da isurketa horien ondorioz”

besterik ez”.

“Errioa ez diezagula ezkutatu”

Uda honetan albiste izan da bestalde, Orbeldiko presa inguru, hedabide batek ur bizien kanalaren proiektua bertan kokatuko zutela berri eman ostean. Anerreka Ingurumen Elkarteak eta Eguzki talde ekologistak “proiektuak, funtsean, zentral

zaharraren hondakinak eraitsi eta 195 metro luzeko katal bat eta pabilioi bat eraikitzea –eta, ondorioz, ibai-ertza urbanizatzea– aurreikusten du. Baina, horrez gain, zentralaren presa mantentzea eta Oriatik 12.000 l/s hartzea ere aurreikusten du. Eta hori ezin da nolana pasatzen utzi”. Isurketa kutsakorrek eza-batzeaz gain, “arrain-espezieen mugikortasuna zailtzen edo ezinezko bihurtzen duten presa eta oztopoak ere ezabatu egin behar dira, baita ibaiak sarri anorexiakoak uzten dituzten ur-hartzeak ere”. 750 bat oztopo badira Gipuzkoako ibaietan, horietako bat Orbeldikoa. Eta bi eragileok gogorazten dutenez, “ez da

edozein oztopo, Orian gora doan arrain-faunak aurkitzen duen lehen oztopo erraldoia baizik. Faunak saihestu dezake soilik presako eskuinaldean dagoen eskala bati esker. Eta eskala horretan, ez kasualitatez, Aldundiak arrainen jarraipena egiteko nasa bat dauka. Bereziki izokina kontrolatzen du, 1995etik Orian berriz ere izokina sartzeko plan bat indarrean baitago. Baina beste espezie batzuk ere behatzen ditu, hala nola, kolaka (Alosa alosa) eta aingira. Orbeldi dago kolaka Kudeatzeko Planak “interes berezikotzat” jotzen duen ibai-zati batean”. Usurbilgo Oria Ibaiaren Paisaiarako 2016ko Ekintza Planak presa eraitsi eta inguru hau lehengoratu behar dela dioela gogorazten dute Anerrekak eta Eguzkik, “iktiofaunarentzat eta Oriako uraren fluxu naturalarentzat oztopo delako”.

“Herriarentzako lurralde eskuratzearen onura”

Izenburu honen bueltan solasaldia antolatuta du Anerreka Ingurumen Elkarteak irailaren 23an 18:30etan Sutegiko auditorioan. Itsasondoko esperientzia izango dute aztergai, bertako alkate, biologo eta botanikari Iñaki Aizpurrekin.

Hariztia ebaki dute Andatzan

Herritik begi bistakoa den Andatzako zuhaitz mozketaz zenbait kexu jaso ditugu azken egunotan. Tartean, herritar batek NOAUA!ra helarazitako idatzi hau:

Garaiz kanpoko mozketak

Harrituta geratu nintzen uda erdi erdian Andatzan dagoen Norteko Harizti handiaren zuhaitzak mozten hasi zirenean. Pentsatu nahi dut basozainaren baimen guztiekin ari direla la-

nean eta harizti hori botatzen ari denak ez du deusen kulparik. Ulergaitza iruditzen zait harizti on bat egiteko (kasu honetan bezala) laurogei edo ehun urte behar dituenean, pertsona bati edo biri okurritu zaielako udara erdian botatzen hastea. Hau ez da urtebeteko gauza bat edo hanka sartu dut esanda gauzak erraz konpondu ditzakeen zerbait. Kasu honetan ehun urteko harizti batekin dabilta jolasean, eta horretarako ez dauka inork

eskubiderik nahi duenean botatzeko. Basozainak berak jakingo du zergatik eman dion botatzeko baimena. Kasu askotan, bota beharreko zuhaitzak harizta izateagatik soilik, ez dute baimenik ematen edo beste edozein aitzakia jarriko dute baimenik ez emateko. Oraingo honetan zer gertatzen da? Egur honen orain ez du ezertarako balio. Ez behintzat iraupen luzerako gauzak egiteko. Aldiz, neguan, bere garaian bota ezker edozer



Andatzan ebaki duten hariztia.

gauza egiteko balioko luke. Beraz, ea denok begiak zabaltzen ditugun eta erakundeei eskatuko nieke arretea gehiago jartzeko horrelako gauzetan; ehun urteko baso batekin ari gara jolasten.

OKEL

Zirimaran aritzeko hezitzaileei zuzenduriko lan eskaintza

2021-22 denboraldira begira Zirimara egitasmoan aritzeko bi hezitzaile behar dira. Eskolaz kanpoko jardueren egitasmo honetan parte hartzeko interesa dutenek deialdira aurkezteko irailaren 17ra arteko epea dute. Lerrootan, lan eskaintza honi buruzko xehetasunak: lanpostuen deskribapena, eskatzen den esperientzia. Baita jasotako kurrikulumen balorazio irizpideen eta balorazio prozesuaren nondik norakoen berri.

Deskribapena

■ Usurbilgo Eskola Kirolean lanean jarduteko bi hezitzaile behar dira. Zirimara proiektuan jardungo duen gainerrako hezitzaileekin elkarlanean arituko dira.

■ Deialdi hau lan poltsa osatzeko baliatuko da eta ondorengo kontratazioak egiteko kontutan izango dugu.

■ Lanaldia urriaren 1etik ekainaren 15era artekoa izango da eta asteko 4 orduko kontratua izango dute hautatutako bi hezitzaileek.

Ezaugarriak

Lanpostuarekin erlazionatutako lan-esperientzia izatea. Zehazki:

■ Gorputz adierazpenaren arloan (dantza, zirkoa, mimita...).

■ Kaleko zein naturako joko-jolasetan.

■ Aisialdiko zuzendari edota hezitzaile moduan aritu izana.

■ Aisialdiko zuzendari tituluduna edo/eta aisialdiko begirale tituluduna (azken hau bete beharreko ezinbesteko baldintza izango da).

■ Emakumeak lehentasuna izango dute.

■ Usurbildarra izatea.

■ EGA edo euskal hiztuna



Bi hezitzaile behar ditu Zirimarak, ikasturte berrirako. Interesdunek kurrikuluma helarazteko irailaren 17ra arteko epea dute.

LAN ESKAINTZA

“Lanaldia urriaren 1etik ekainaren 15era artekoa izango da eta asteko 4 orduko kontratua izango dute”

izatea.

Hautagaiak aukeratzeko balorazio prozesua

Bidali zuen curriculum-ak elkarte@noaua.eus helbidera edo utz itzazue Noaua!ko egoitzan irailaren 17a baino lehen (bulegoan utziz gero, gaineratu zuen helbide elektronikoa CV-an).

Balorazio irizpideak

Curriculum-ak ondorengo irizpideen arabera baloratuko ditugu:

■ Hezkuntzarekin zerikusia duen formazioa.

■ Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin zerikusia duten graduak edo/eta masterrak: 2 puntu.

■ Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin zerikusia duten goi-mailako teknikari titulua edo eta aisialdiko zuzendari titulua: puntu 1.

■ Lanpostuarekin erlazionatutako lan-esperientzia (kontrataduna).

■ Heziketa fisikoko irakasle moduan jardundako ikasturte bakoitzeko 6 puntu.

■ Lehen hezkuntzan irakasle moduan jardundako ikasturte bakoitzeko edo aisialdiko zuzendari moduan jardundako hilabete bakoitzeko 4 puntu.

■ Eskola kirolean jardundako ikasturte bakoitzeko edo aisialdi jardueretan (udajolas, udako kanpamenduak...) edo adierazpen motorrekin erlazionatutako jardueretan lanean aritutako hilabete bakoitzeko 2 puntu.

■ Deialdi honetako lanpostuarekin zerikusia duten bestelako jarduerak.

■ Gorputz adierazpen jardueretan edo kalean/naturan egindako joko-jolasetan boluntario moduan izandako hilabete bakoitzeko 0,5 puntu.

■ Udako kanpamenduetan edo aisialdi taldeetan ikasturtean zehar boluntario moduan izandako hilabete bakoitzeko 0,2 puntu.

Curriculum guztien artetik bost hoberenak hautatuko dira eta irailaren 23an, arratsaldeko 16:00etan elkarriketa batera deituko ditugu. Era berean, bost horietatik aukeratuko dira, Zirimara egitasmoan arituko diren bi hezitzaileak.

Nahia Zudaire, laugarren Tokion

Podiumaren atarian, laugarren postuan sailkatu zen gazte zubietarra Tokioko Parraolinpiar Jokoetan.

Matrikulazioa HHI-n

18 urtetik gorakoentzako doako hezkuntza eskaintza-aren ikasturtea irailaren 16an abiatuko dute. Oinarrizko prestakuntza, DBH-ko titulua eskuratzeko moduluak edota etorkinei zuzenduriko ikasketak programa dute. Kultur ekintzak ere sustatzen dituzte. Matrikulatzeko hitzordua eskatu: 012734aa@hezkuntza.net / 943 36 12 73.

Katekesirako izen ematea, online

Covid19a dela eta, “guraso pilaketak ekiditeko” 2. mailatik aurrerakoek emailaz jasoko dute izen emate orria eta informazioa. 1. mailan apuntatu nahi dutenek bi-deotatik eman ahalko dute izena, irailaren 20tik 26ra: salbatoreparrokia@gmail.com edo 943 361 239. “Gu jarriko gara harremanetan familiariekin”. Ikasturtea urriaren 15ean abiatuko dute.

Orbeldiren izen ematea, online

Usurbilgo dantza taldeak berriz ireki du 2021-22 ikasturterako prestatu duten helduen ikastaro eskaintzan izen emateko epea, irailaren 22ra arte. Izen emateko lotura hemen duzue: <https://forms.gle/xUYUZ7A9XeVUUZ-nHA>

Euskal dantzen taldea, oinarrizko dantzak, dantza hastapenak eta plaza dantzei lotutako saioak iragarri ditu Orbeldik ikasturte berrirako. Informazio gehiago: orbeldi.udt@gmail.com/ Facebook (/orbeldiDT) / Instagram (/orbeldi_udt).

Kirol ikastaro eskaintza berritua, herria aktibatzen segitzeko

Erironka horren bueltan, aurkeztu du Usurbilgo Udalak 2021-22 denboraldirako kirol eskaintza. Eta horrekin batera, azpiegituretan egin dituzten hainbat hobetze lan ere bai; “aurtengorako jarri genituen helburu guztiak betetzera goaz epeen barruan”. Ildo horretan segi nahi dute, “aukerak zabalitzen eta hobetzen”, erronka nagusira bidean: “herritarrak aktibo mantentzea eta aktibo ez diren horiek guregana gerturatu eta ohitura osasuntsuak” sustatzerantz alegia.

Hobekuntzak

Kiroldegiko sarrerako harrera gune berria egokitu dute. Agerialdeko eraikineko frontoia ere estali dute ikastolarekin elkarlanean. “Ezker pareta konpondu eta drainatze sistema” ezarri dute. Hartara, kirol gune berri bat irabazi du ikastolak bere jarduerarako, baita Eskola Kirolerako...

Harane futbol zelaian “klubarekin adostuta harmailak jarri ditugu”, aspalditik zetorren eskaerari erantzunez.

Kiroldegira itzulita, “aurtengo inbertsio handiena”, harmailen berritze prozesua martxan da, “azaroan instalatuta egongo direla espero dugu”. Erabiltzeko moduan; jada, pandemia hasieratik sarrera debekatua izan duten zaletuak kirol instalakuntzetara itzultzen hasiak baitira.

Igerilekuko eremuan zerbitzua osagarrituko duen sauna berritua zabalduko dute laster. Bere garai bateko kokalekua eta orduko



Ikastaroei buruzko informazio gehiago Udalaren triptikoan, Kiroldegiko harrera gunean edota 943 37 24 98 telefono zenbakian jaso ahalko duzue.

USURBILGO UDALA:

“Aurtengo inbertsio handiena, Kiroldegiko harmailen berritze prozesua martxan da”

kudeatzaileen etxebizitzaren gunea erabilera anitzeko areto bat sortzeko baliatuko du Udalak. Eskaintza zabaldu eta “dantzako taldeari ordu batzuk bideratzeko aukera” ahalbidetuko du.

Inkestaren emaitzak

Uda aurretik, erabiltzaileek Usurbilgo kirol zerbitzuak batoratzeko aukera izan zuten, Udalak eskuragarri jarritako inkestaren bidez. “Jasotako emaitzak oso onak izan dira”, adierazi dute Udaletik, “eta horrek lanean jarraitu ahal izateko gogo eta indarra ematen digu”.

124 pertsonen (74 emakumeek, 40 gizonezkoek) parte hartu dute inkestan; 9ko puntuazioa ematen diote zer-

bitzuari, 8koa covid19aren aurkako neurriei. “Gehienbat begiraleen lana azpimarratzen dute”, kirol teknikariaren esanetan. Hobekuntza hainbat ere proposatzen dituzte. “Horiek egikaritzen saiatuko gara, are eta gusturago egon daitezten”.

Ikasturte berria covid19ari aurre egiteko segurtasun neurri berdinekin abiatuko dute. “Erabiltzaileei eskerrak eman covid19 testuinguru honetan gugan izan duten konfiantzagatik eta erakutsi duten gogo eta errespetuagatik”, adierazi dute jarduera fisikoetako eta kirolekoko udal sailetik. Proposamen eta iritzietarako atea zabalik dituztela gogorarazi dute. Garai zailak izan arren, erabiltzaile kopuru handiena mantentzea lortu dutela berri eman dute, “beste herriekin alderatuta, ehuneko altuagoan” erabili dira kirol instalakuntzak edota handiagoa izan da ikastaroei erakarri duten parte hartzea.

Matrikulazio garaia

Kiroldegiko ikastaroetan zabalik dute aurre izen ematea irailaren 23ra arte. Online bideratu beharko dira inskripzioak, bideotatik:

<https://labur.eus/HhmXA> (helduena)

<https://labur.eus/zjwgm> (haur eta gazteena)

Plazen zozketa irailaren 24ean egingo da eta segidan zerrendak argitaratuko ditu Usurbilgo Udalak.

Eskaintza zabalagoa eta berritua prestatu dute. Igerilekuko ikastaroetan, 0-3 urte arteko haurrek larunbatetan eta igandeetan ere saioak izango dituzte. HH4-HH5ekoek, plaza librerik egonez gero, astero bigarren saio bat hautatu ahalko dute. Lehen Hezkuntzan ikastaroen egunak aldatu dituzte. Helduen kasuan, hastapen eta hobekuntza saioez gain, aquagym saioak edota haurdun direnentzat ur jarduera eta pilates ikastaroa izango da.

Kirol jarduerak herrian

Areto ikastaroei dagokienez, erabiltzaileen eskariz eskalada ikastaroa berreskuratu da gazteentzat. Zunba edota spinning saioak ere aukeran izango dituzte. Baita helduek ere, pilates, mantentze ikastaroak edota yoga saioekin batera. Eskaintza berritu dute helduentzat; ikastaro konbinatuak, “intentsitate altuko eta atsedean tartea dituen HIIT jarduera”, eta aire zabalean kirola praktikatzea ahalbidetuko duen “Usurbil barrena” ikastaroa izango dute aukeran.

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udalxte aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

2 logela edo gehiagoko etxe bat alokatu nahiko nuke. Usurbildarra naiz eta berehala sartzeko litzateke. 641562917.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra dauka. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Zerbitzari euskalduna behar dugu Olarrondo jatetxean as-teartetik ostiralera, eguerdiatarako soilik. 626 686 036

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea.

638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

DBH4ko ikasle batek ingeleseko klase partikularrak jasotzeko irakasle usurbildar bila. 608 201 745

Pertsona helduak, garbiketak, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoren zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisiza@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

BESTELAKOAK

Katakumeak opari. Bakarra gertatzen zait, arra, 3 hilabete ditu. Galdetu Izar Etxen, Udarregi parean, edo deitu 635709267 (Iker).

Frantseseko klaseak jasotzeko irakasle bila nabil. 652 725 022.

Lepoko marroldun txakurkume eme marroi bat aurkitu dugu Olarrondo kalean. 685473499

Herritar batek perikito bat topatu eta udaltzainetan utzi du. Telefonoz dei dezake (943 36 11 12) edo udaltzainetara joan, zuzenean, perikitoaren bila.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

**Zorionak Erik!**

6 urte bete dituzu! Muxu handi bat, asko maite zaitugu.

**Zorionak Areia eta June!**

Areiak irailaren 9an eta Junek irailaren 11n beteko dituzue urteak. Zorionak eta muxu asko etxekoen partez!

**Zorionak Ana!**

Urte askoan Ana. Zure irribarreak argitzen gaitu... Bihotzez...

Heriotzak

Jorge Manuel Garcia Pellus

Uztailaren 20an hil zen
48 urterekin

**Heriotzak**

Pilar Aizpurua Ariztimuño

Uztailaren 23an hil zen
91 urterekin

**Heriotzak**

Anttoni Zabala Alkorta

Uztailaren 30ean hil zen
80 urterekin

**Heriotzak**

Gregorio Arbeloa Irigoyen

Abuztuaren 1ean hil zen
80 urterekin

**Heriotzak**

Mercedes Gonzalez Gallardo

Abuztuaren 17an hil zen
85 urterekin

**Heriotzak**

Luis Sanchez Casado

Abuztuaren 29an hil zen
85 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 09 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 10 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 11 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 12 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 13 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteartea 14 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 15 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 16 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 17 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

Larunbata 18 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 19 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda iraila

10 ostirala

- "Sagarraren heldutasun analisiak" ikastaroa. 15:30-18:30 artean Potxoenean.
- Demode Quartet taldearen "Epa" ikuskizuna. 18:30etan Zubietako errebotte plazan.

11 larunbata

12 igandea

- Errausketaren aurkako giza katea Kontxan. 11:00etan Alderdi Ederretik abiatuta.

Demode Quartet taldekoen "Epa" ikuskizuna Zubietan

Euskal "esentziak" munduko gainerrako kulturetan eragin izan duela frogatzera datoz, Demode Quartet taldekoak Zubietara, "Epa" ikuskizunarekin. "Erabat seguru daude countryaren, jazzaren, sanbaren, bollybodaren edo pop modernoaren jatorria Euskal Herriko mendi, portu eta haranetan bilatu behar dela".

Hala ote den egiaztatzeko, Zubietan Lantzen elkarteak antolaturiko ikuskizunera joan besterik ez duzue. Ostiralean, irailak 10, 18:30etan Zubietako errebotte plazan, euria eginez gero frontoian. Sarrerak aurrez eskuratu beharko dira usur-



Demode Quartet taldeko kideak. "Epa" ikuskizuna eskainiko dute ostiral honetan Zubietan.

bilkultura.eus plataforman 10 eurotan. Txartela egokitzen zaionari, ordainketa ekitaldi gunean bertan egin beharko du eskudirutan.

"Sagarraren heldutasun analisiak" ikastaroa

Alkartasuna Baserritarren Kooperatibaren eskutik, "sagarraren heldutasuna aztertzeke 3 sistema azalduko dira: gogortasunaren neurketa, azukrearen neurketa eta almidoiaren azterketa". Ostiralean, irailak 10, 15:30-18:30 artean Potxoenean. Izena aurrez eman beharko da usurbilkultura.eus plataforman, 15 euroren truke. 23 lagunentzako tokia dago.

Muxurbil antzerki eskola, ikasturte berriari begira

"Antzerkiaren bidez disfrutatzeke prest? Muxurbil eskaintza berri batekin dator", iragarri dute. "Antzerki klase berriak Ixabel Agirresarobe eta Andrea Arrutiren eskutik, beraien esperientzia eta ikaskekin, astean ordubeteko saioak emango dituzte". Prezioa, hilero 30 euro. Informazio gehiagorako: 675 71 23 83 (Ixabel) edo 650 614 380 (Andrea).

Datozenak

Erraustegiaren aurkako giza katea Kontxan

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak giza katea antolatu du aurten ere, Kontxako Banderaren bigarren jardunaldi egunean, irailaren 12an, "Errausketa = klima aldaketa" aldarripean. Goizeko 11:00etan Alderdi Ederrean joateko deia egin dute sare sozialen bidez. "Estropadetan giza katea! Hemen ez da ezer amaitu, hemen dena lortzeko dago! Babestu, zabaldu eta parte hartu!" eskatu dute antolatzaileek.

Lehiaketa eta ikastaroak Santuenean

Ikastaro eskaintza zabala plazaratu du Santuenea Elkarteak: aeroyoga (asteazken arratsaldeetan), aero berezia (astearte arratsaldeetan), errestauratiboa (ostegun goizetan). Izen ematea; 615 715 991 edo 670 027 731. Urritik aurrera (astelehen eta ostiraletan 17:00etan) Taichi tailerra Gure Elkarrearen eskutik, Santuenea Elkarteak 16. lokalean.

Horrez gain, 18. Argazki Lehiaketa ere antolatu dute. Gaia "Santueneako sarrera-irteerak". Irailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira irudiak 50X50 tamainan edo modu digitalean. Xehetasun gehiago, 670 027 731 telefono zenbakian.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

txirriStra

TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



FUNERARIA GONZALEZ EHORTETXEA

munalurra 8, USURBIL

EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU
BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK

**zerbitzu pertsonala,
eta familia bakoitzari egokituta**
ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU
GURE FUNERARIARA DEITU ZUZENEAN
ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

www.funerariagonzalez.es

KAMDEN

hizkuntzak

English courses

**Irailaren 6tik
matrikulazio epea zabalik**

**Klase prezentialak eta online
informa zaitez!**

kamden@kamdenhizkuntzak.com

kamdenusu@gmail.com

www.kamdenhizkuntzak.com

Zubiaurrenea 6 • Tlf 646 94 58 17

GOLDWELL
ELUMEN

ileapaindegi



Kolorazioetan teknika
berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

noaua

jarraitu gure sare sozialak

facebook

Instagram

twitter

noaua

www.noaua.eus



SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2021

Irailak 10, OSTIRALA
SAGARRAREN HELDUTASUN
ANALISIAK

Aitor Etxeandia

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenea



SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman edo
www.alkartasuna.eus

